

# **2014ko KONTU OROKORRA**

ZUMAIAKO UDALA

# **CUENTA GENERAL 2014**

**AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA**

## AURKIBIDEA

## INDICE:

### UDALA

- Memoria -
- Egoera-balantzea -
- Galdu-Irabazien Kontua -
- Kontuen balantzea -
- Aurrekontuaren likidazioa -

### SAN JUAN EGOITZA

- Memoria -
- Egoera-balantzea -
- Galdu-Irabazien Kontua -
- Kontuen balantzea -
- Aurrekontuaren likidazioa -

### MUSIKA PATRONATOA

- Memoria -
- Egoera-balantzea -
- Galdu-Irabazien Kontua -
- Kontuen balantzea -
- Aurrekontuaren likidazioa -

### KIROL PATRONATOA

- Memoria -
- Egoera-balantzea -
- Galdu-Irabazien Kontua -
- Kontuen balantzea -
- Aurrekontuaren likidazioa -

### ZUMAIA LANTZEN E.A.

- Aurrekontuaren likidazioa -
- Egoera Balantzea -
- Galdu Irabazien Kontua -
- Memoria -
- Ondaren garbian izandako aldaketen egoera balantzea

### EGONKORTASUNEKO TXOSTENA

### AYUNTAMIENTO:

- Memoria
- Balance de Situación
- Cuenta de Pérdidas y Ganancias
- Balance de cuentas
- Liquidación del Presupuesto.

### SAN JUAN EGOITZA:

- Memoria
- Balance de Situación
- Cuenta de Pérdidas y Ganancias
- Balance de cuentas
- Liquidación del Presupuesto

### MUSIKA PATRONATOA:

- Memoria
- Balance de Situación
- Cuenta de Pérdidas y Ganancias
- Balance de cuentas
- Liquidación del Presupuesto

### KIROL PATRONATOA

- Memoria
- Balance de Situación
- Cuenta de Pérdidas y Ganancias
- Balance de cuentas
- Liquidación del Presupuesto

### ZUMAIA LANTZEN S.A.:

- Liquidación del Presupuesto.
- Balance de Situación
- Cuenta de Pérdidas y Ganancias
- Memoria
- Estado de cambios en el patrimonio neto

### INFORME SOBRE ESTABILIDAD





# **ZUMAIAKO UDALA**



**ZUMAIKO UDALA**

**2014KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO  
EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA**

**AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA**

**MEMORIA CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ANUAL  
TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2014**

## ZUMAIAKO UDALA

### 2014KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA

#### (1) Erakundearen jarduera

Zumaiako Udala —aurrerantzean, Udala— Administraziooko toki-erakundea da, oinarritzko alderdietan Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak zuzentzen duena. Lege horretako 25. eta 26. artikuluetan, udalek dituzten eskumen eta ematen dituzten zerbitzu batzuk zehazten dira, aipagarrienak hauek: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzea, ur-hornidura, saneamendu-sarea, herriko argiteria, hirigintza-alorra, kultura- eta kirol-jarduerak, etab.

Zerbitzu horiek, batez ere, hauekin finantzatzen dira:

- Udal-zergak
- Tasa eta prezio publikoak, aipatutako zerbitzu batzuk finantzatzen dituztenak.
- Partaidetza, zerga itundu eta ez-itunduetan
- Ondare-sarrerak
- Diru-laguntzak
- Epe luzerako maileguak

Zerbitzuak zuzenean edo zeharka eman ditzakete udalek. Kudeaketa zuzena Udalak berak egin dezake, edo bestela, beste erakunde batzuk era ditzake kudeaketa hori gauzatzeko: toki-erakunde autonomoak, udal-sozietate anonimoak, mankomunitateak eta partzuergoak, Zumaiako Udalak hurrengo erakundeetan hartzen duen parte:

#### **Erakunde autonomoak:**

- a) **San Juan Egoitza:** 2015eko maiatzaren 11ko datarekin, eta 2014IHHO0015 espediente zenbakiarekin hitzarmen bat sinatu zen Zumaiako udalaren, “San Juan Egoitza” erakunde autonomoaren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean. Bertan, Udalerriko Pertsona Nagusientzako “San Juan Egoitza”, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatua izatera pasako dela zehazten da, 2015eko abenduaren 31a baino lehen.
- b) **Musika Patronatua:** langilerik gabe atxikitutako erakunde autonomo bat da gaur egun
- c) **Kirol Patronatua:** bi langile dauzkan erakunde autonomoa bat da.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

### MEMORIA CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2014

#### (1) Actividad del ente

Ayuntamiento de Zumaia —en adelante, el Ayuntamiento— es una entidad local de la Administración, regida en sus aspectos básicos por la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local. Los artículos 25 y 26 de la citada Ley definen algunas de las competencias o servicios públicos que prestan los ayuntamientos, entre los cuales cabe citar: seguridad, servicio de limpieza, extinción de incendios, abastecimiento de agua, red de saneamiento, alumbrado público, disciplina urbanística, actividades culturales y deportivas, etc.

Estos servicios son financiados básicamente con:

- Impuestos municipales
- Tasas y precios públicos, que financian específicamente algunos de los servicios citados
- Participación en Impuestos concertados y no concertados
- Ingresos patrimoniales
- Subvenciones
- Préstamos a Largo Plazo

Los servicios pueden ser prestados de manera directa o indirecta por los ayuntamientos. La gestión directa puede desarrollarse por el propio Ayuntamiento o bien mediante la creación de organismos autónomos locales, sociedades anónimas municipales, mancomunidades y consorcios, participando el Ayuntamiento de Zumaia en las siguientes entidades:

#### **Organismos autónomos:**

a) **Residencia de San Juan:** Con fecha 11 de mayo de 2015 y con número de expediente 2014IHHO0015 se firmó un convenio entre el Ayuntamiento de Zumaia, el organismo autónomo “Residencia San Juan” y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Relativo al traspaso de la gestión del Centro Residencial Municipal para Personas Mayores San Juan, para pasar a ser gestionado por La diputación Foral de Gipuzkoa antes del 31 de diciembre del 2015.

b) **Patronato de Música.** Es un organismo autónomo sin personal adscrito a día de hoy.

c) **Patronato de Deportes.** Es un organismo autónomo con dos trabajadores adscritos a él.

**-Udalaren jabegoko sozietateak (%100ean):**

**Zumaia Lantzen S.A. sozietatea (%100):** 2014ko abenduaren 19an administrazio-kontseiluak ondorengo akordio hartu zuen, likidazio prozesuan sartzea, ondoren desegiteko. Non, azkeneko sozietate hau eskritura publikora altxatu da Idurre Atorrasagasti Gurpegi Zumaiaiko notarioaren aurrean 2015eko martxoaren 12an.

**-Parte hartzen duen beste entitate batzuk:**

- Zumaiaiko Kirol Portua S.A. sozietatea.
- Urola Kostako Udal Elkartea.
- Urkome, Urola Kostako Landa Garapeneko Elkartea
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.

**(2) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak**

**a) Irudi leiala**

Erantsitako urteko kontuak kontabilitate publikoaren printzipioen arabera aurkezten dira; hau da, alderdi adierazgarri guztietan Udalaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala erakusten dute. Urteko kontu horiek prestatzeko, erakundearen kontabilitate-liburuak eta -erregistroak hartu dira oinarri, eta egoki aurkezteko zenbait gauza birsailkatu dira.

2013ko ekitaldiari zegozkion urteko kontuak, 2014ko uztailaren 21eko ez-ohiko Osoko Bilkurak onartu zituen.

2014ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak, berriz, oraindik ez ditu onartu Osoko Bilkurak; nolana ere, ez da espero kontuetan aldaketa garrantzitsurik egotea onarpen horren ondorioz.

**b) Kontabilitate-printzipioak**

Udalak 1993ko urtarrilaren 1ean egin zuen hasierako balantze-egoera, eta horretarako hauek hartu ziren kontuan: data horren aurretik eskuratutako edo eraikitako udal-ibilgetua, orduan epea bete zeuden pasiboak, eta diruzaintzako saldoetatik, 1992ko abenduaren 31n zeuden diruzaintza-gerakineko zordun, eta hartzekodunen saldoak.

1993an, lehendik zegoen ibilgetua egoera-balantzean sartzeko asmoz, udal-ibilgetuen inbentarioa eta balorazioa egiteko eskatu zion Udalak AVASA (Asesores de Valoración de Activos S.A.) enpresari, balorazio-arauek dioten arren

- **Sociedades 100% Propiedad del Ayuntamiento:**

**Sociedad Zumaia Lantzen S.A. (100%).** El 19 de diciembre de 2014 se tomó el acuerdo por el consejo de administración de entrar en proceso de liquidación para su posterior extinción. La cual ha sido elevada a escritura pública ante la Notario Idurre Atorrasagasti Gurpegui de Zumaia el 12 de marzo de 2015.

-Otras entidades en las que participa:

- Sociedad Zumaiako Kirol Portua S.A.
- Mancomunidad Urola Costa.
- Urkome, Asociación de Desarrollo Rural de Urola Costa.
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

(2) Bases de presentación de las Cuentas Anuales

a) Imagen fiel

Las cuentas anuales adjuntas se presentan de acuerdo con principios contables públicos, de forma que expresen, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio, la situación financiera y los resultados del Ayuntamiento. Dichas cuentas anuales se han preparado a partir de los libros y registros de contabilidad de la Entidad e incluyen ciertas reclasificaciones para su adecuada presentación.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2013 fueron aprobadas por el Pleno extraordinario del Ayuntamiento de 21 de julio de 2014.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2014 están pendientes de aprobación por parte del Pleno del Ayuntamiento, si bien no se espera que se produzcan modificaciones de importancia en las mismas como consecuencia de dicha aprobación.

b) Principios contables

El Ayuntamiento constituyó su balance de situación inicial el 1 de enero de 1993 a partir del inmovilizado municipal adquirido o construido con anterioridad a dicha fecha, de los pasivos no vencidos entonces y de los saldos de tesorería, deudores y acreedores del Remanente de Tesorería al 31 de diciembre de 1992.

En 1993, con objeto de incorporar al balance de situación el inmovilizado existente, el Ayuntamiento encargó la realización de un inventario y valoración del inmovilizado municipal a la empresa AVASA (Asesores de Valoración de Activos



ondasun horiek baloratzeko eskuratze-prezioa edo produkzio-kostua erabili behar direla nahitaez. Lan haren arabera, amortizazioen udal-inbentario garbia 1.188 milioikoa zen, gutxi gorabehera, 1993ko abenduaren 31n. 2015eko apirilaren 30ean ospatutako Osoko Bilkurak inbentario berri bat onartu zuen, bertan, udalaren zein bere erakunde autonomoen ondasunak daude sartuta. Inbentario berri horren isla kontablea 2015eko urteko kontuetan egingo da.

(3) Emaitzen banaketa

2014ko ekitaldiaren emaitzen banaketarako proposamen hau aurkeztuko zaio Osoko Bilkurari, onar dezan:

Kontzeptua	Euroak
Ekitaldiaren emaitza, erantsitako galera eta irabazien kontuaren arabera-	1.794.252,54
Hauek banatuko dira:	
Itxitako ekitaldietako emaitza positiboak	1.794.252,54

Behin, kontabilitatea itxi ondoren konturatu gara galera bat dagoela T.S.P.ko epe luzerako balore negoziagarrietan balio-galera bat izan delako 2014an, eta ez dugu kontabilizatu, zenbatekoa 1.991.992,08€-koa da. Beraz, ekitaldian emaitza positiboa izan beharrean, 197.739,54€-ko galera izan beharko genuke. Doiketa hau Zumaia Lantzenen akzioen balio nominalari dagokie, udalaren jabegokoak 2.267.891,53€ dira, baina sozietatearen ondare garbia 275.899,45€-koa da, beraz balio-galeraren ondoriozko galera 1.991.992,08€-koa da. Horregatik, goiko taularen ordeztu, doiketa horren ondoren emaitzak horrela gelditu beharko luke:

Kontzeptua	Euroak
Ekitaldiaren emaitza, erantsitako galera eta irabazien kontuaren arabera-	-197.739,54
Hauek banatuko dira:	
Itxitako ekitaldietako emaitza negatiboak	-197.739,54

S.A.) a pesar de que las normas de valoración indican la obligatoriedad del uso del precio de adquisición o del coste de producción para la valoración de dichos bienes. El importe al 31 de diciembre de 1993 del inventario municipal neto de amortizaciones que resultó de dicho trabajo ascendía a 1.188 millones de pesetas, aproximadamente. El Pleno celebrado el 30 de abril de 2015 aprobó un nuevo inventario que incluye tanto los bienes del ayuntamiento así como de sus organismos autónomos. El reflejo contable de este nuevo inventario se hará en las cuentas anuales del 2015.

(3) Distribución de los resultados

La propuesta de distribución del resultado del ejercicio 2014 que se propondrá al Pleno del Ayuntamiento para su aprobación es la siguiente:

Concepto	Euros
Resultado del ejercicio, según la cuenta de pérdidas y ganancias adjunta-	1.794.252,54
Distributable a:	
Resultados positivos de ejercicios anteriores	1.794.252,54

Una vez cerrada la contabilidad nos hemos dado cuenta de que habría una pérdida por depreciación de valores negociables a largo plazo que no se ha contabilizado en el 2014, y que ascendería a 1.991.992,08€. Por tanto, en vez de resultados positivos del ejercicio, deberíamos de tener un resultado de pérdida de 197.739,54€. Este ajuste se debe a que el valor nominal de las acciones de Zumaia Lantzen propiedad del ayuntamiento asciende a 2.267.891,53€, pero el valor de su patrimonio neto asciende a 275.899,45€, por lo que, la pérdida por depreciación asciende a 1.991.992,08€. Por lo que, el cuadro anterior de arriba, tras este ajuste debería quedar de la siguiente manera:

Concepto	Euros
Resultado del ejercicio, según la cuenta de pérdidas y ganancias adjunta-	-197.739,54
Distributable a:	
Resultados negativos de ejercicios anteriores	-197.739,54

Doiketa hau 2015eko urtarrilaren 1ean egin da, 2014ko kontabilitatea, jada, itxita zegoelako. Doiketa honek ondare garbiari eragiten dio, horren ondorioz, balioa 1.991.992,08€-tan jaisten da, ondorioz, pasiboaren guztizkoa 27.919.479,45€-koa izan beharko litzateke (29.911.471,53-1.991.992,08), eta aktiboko 2400 kontuan T.SP.ko entitateetako partaidetzak, 1.991.992,08€-ko balio-galera doiketa egin beharko litzateke. Horrela, aktiboan zenbatekoa ere 27.919.479,45€-koa izango da.

#### (4) Balorazio-arauak

Indarrean den legediari jarraiki, hauek izan dira Udalak, 2014ko abenduaren 31n, bere urteko kontuak egiteko erabili dituen balorazio arau nagusiak:

##### a) Ibilgetu ez-materialak

Plangintzako Arau Subsidiarioak, Plan Partzialak eta bestelako hirigintza-tresnak nahiz informatika-aplikazioak egiteak eta berrikusteak eragindako aurrekontu-gastuen ondorioz erregistratu den ibilgetu ez-materiala linealki amortizatzen da, 10 urteko epean (6. oharra).

##### b) Ibilgetu materialak

Ibilgetu materiala erosketa-kostuaren prezioan baloratuta dago, egoera-balantzea egin aurretik eraikitako edo eskuratutako ibilgetu materiala salbu; azken hori, hain zuzen, perituaren tasazioko balioak jarrita zehaztu da (7. eta 10. oharrak).

Produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna gehitzeko nahiz ondasunen balio-bizitza luzatzeko egiten diren zabalpen-, modernizatzeko- edo hobekuntza-kostuak ondasun horien kostu handiagotzat kapitalizatzen dira.

Konponketen eta mantentze-lanen gastuak, berriz, egin diren ekitaldiko emaitzen kontura erregistratzen dira.

##### c) Ibilgetu materialaren amortizazioa

Ibilgetu materiala metodo lineala erabiliz amortizatzen da; horretarako, jarraian adieraziko den elementu bakoitzak ustez izango duen balio-bizitzaren urteetatik eratorritako urteko ehunekoak aplikatuko dira.

Este ajuste se ha realizado a 1 de enero del 2015, ya que, la contabilidad del 2014 está cerrada. Este ajuste afecta al patrimonio neto, ya que, disminuye su valor en 1.991.992,08€, y por tanto, el pasivo total debería ascender a 27.919.479,45€ (29.911.471,53-1.991.992,08), y en el activo total en la cuenta 2400 valores negociables a largo plazo, debería de ajustarle una provisión por 1.991.992,08€. De manera, que el activo total sea igual a 27.919.479,45€.

#### (4) Normas de valoración

Las principales normas de valoración utilizadas por el Ayuntamiento en la elaboración de sus cuentas anuales a 31 de diciembre de 2014, de acuerdo con la legislación vigente, han sido las siguientes:

##### a) Inmovilizaciones inmateriales

El inmovilizado inmaterial registrado como consecuencia de los gastos presupuestarios derivados de la elaboración y revisión de Normas Subsidiarias de planeamiento, Planes Parciales y otros instrumentos urbanísticos, así como de aplicaciones informáticas, se amortiza linealmente en un período de 10 años (Nota 6).

##### b) Inmovilizaciones materiales

El inmovilizado material está valorado a precio de coste de adquisición, excepto el inmovilizado material construido o adquirido con anterioridad a la constitución del balance de situación, que se halla registrado por los valores resultantes de la tasación pericial efectuada (Notas 7 y 10).

Los costes de ampliación, modernización o mejoras que representan un aumento de la productividad, capacidad o eficiencia, o un alargamiento de la vida útil de los bienes, se capitalizan como mayor coste de los correspondientes bienes.

Los gastos de reparación y mantenimiento se registran con cargo a los resultados del ejercicio en que se incurren.

##### c) Amortización del inmovilizado material

La amortización del inmovilizado material se efectúa siguiendo el método lineal, mediante la aplicación de los porcentajes anuales que se indican a continuación, derivados de los años de vida útil estimada de cada elemento:

Elementuak	%
Eraikuntzak	3
Instalazio teknikoak eta makinak	10
Bestelako instalazioak	15
Tresneria	15
Altzariak	15
Informazio-prozesuetarako ekipoa	25
Garraio-elementuak	20
Bestelako ibilgetu materialak	10

d) Finantza-ibilgetuak

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratuta dauden errenta aldakorreko tituluak kotizazio ofizialean onartu ez diren balioei dagozkie, funtsean; hots, haien eskuratze-kostuaren arabera edo, ikuskatu gabeko azken balantzea oinarri hartuta, lortu den kontabilitateko balio teorikoaren arabera kontabilizatuko dira, balio bietatik txikiena duenaren arabera, zehazki (8. oharra).

Gainerako finantza-ibilgetua emandako edo gordailatutako zenbatekoaren arabera kontabilizatzen da.

e) Izakinak

Saldoa zero da.

f) Kaudimen-gabeziarako hornidura

Udalak hornidura bat finkatzen du kaudimen-gabeziarako, bai modu bereizian, baita oroharreko prezioaren ehuneko bat zehaztuz; horretarako, kontuan hartzen dira zorraren antzintasuna, horien zenbatekoa, dagozkion baliabideen izaera, borondatezko aldiaren nahiz exekuzio-bidean bildutakoaren ehunekoak, etab. Nolanahi ere, kontuan zorra egin zenetik 24 hilabete baino gehiagoko antzintasunez behar bezala onartutako eskubideen %100 nekez gauzagarriak edo gauza-ezinak direla ulertuko da, behar bezala bermatuta daudenean eta 2015ean kobra daitezkeela uste denean salbu.

g) Aldi baterako finantza-inbertsioak

Epe laburrerako balio-zorroaren osagaiak eskuratutako prezioan baloratzen dira, edo bestela, ordain-jasotzeko balioan, baldin eta azken hori txikiagoa bada.

Inbertsio Funtsetako (BHIF) partaidetzetan lortutako etekina sarrera gisa kontabilizatuko da besteratzeko datari dagokion ekitaldian.

Elementos	%
Construcciones	3
Instalaciones técnicas y maquinaria	10
Otras instalaciones	15
Utillaje	15
Mobiliario	15
Equipos para procesos de información	25
Elementos de transporte	20
Otro inmovilizado material	10

d) Inmovilizaciones financieras

Los títulos de renta variable que están registrados en este epígrafe del balance de situación al 31 de diciembre de 2014 adjunto corresponden, básicamente, a valores no admitidos a cotización oficial, que se contabilizan a su coste de adquisición o a su valor teórico contable obtenido a partir del último balance disponible no auditado, el menor de ambos (Nota 8).

El resto del inmovilizado financiero se contabiliza por el importe entregado o depositado.

e) Existencias

Su saldo es cero.

f) Provisión para insolvencias

El Ayuntamiento dota una provisión para insolvencias, bien de forma individualizada, bien mediante la fijación de un porcentaje a tanto alzado, teniendo en cuenta la antigüedad de las deudas, el importe de las mismas, la naturaleza de los recursos de que se trate, los porcentajes de recaudación tanto en período voluntario como en vía ejecutiva, etc. En todo caso, aquellos derechos debidamente reconocidos con una antigüedad superior a 24 meses desde su contracción en cuentas se consideran en un 100% de difícil o imposible realización, salvo que se encuentren debidamente garantizados y sea previsible su cobro en el ejercicio 2015.

g) Inversiones financieras temporales

Los distintos componentes de la cartera de valores a corto plazo se valoran a su precio de adquisición o a su valor de reembolso, si este último fuese inferior.

El rendimiento producido por las participaciones en Fondos de Inversión (F.I.M.), se contabiliza como ingreso en el ejercicio de su enajenación.

h) Diru-laguntzak

Udalak kapitalerako edo ustiapenerako diru-laguntzat erregistratzen du jasotako zenbatekoa, diruz lagundutako gertaerak burutu eta dagozkien aurrekontu-gastuak egotzi ondoren arauzko frogagiriak diru-laguntza eman duen erakundera bidali direnean.

i) Kalte-ordainak

Indarrean den lan-araudiari jarraiki, udalak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie zenbait baldintzatan lan-harremana apurtzen zaien langileei. Egoera normaletan, etorkizunean izan daitezkeen kaleratzeak aztertuz, eta kaleratze horiengatik ordaindu beharko diren kantitateak kalkulatu, kalte-ordainak direla eta sor daitezkeen pasiboa ez da handia. Udaleko gobernu-organoen ustez, ez da kaleratze arrarorik gertatuko, eta, beraz, ez da funts-hornidurarik egin kontzeptu horretarako 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzean (erantsita dago).

j) Epe laburrerako zorren sailkapena

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzean (erantsita dago), zorrak mugaegunen arabera sailkatu dira; hots, epe laburrerako zor gisa hartu dira 2014ko abenduaren 31ren aurreko mugaeguna duten zenbatekoak.

k) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen-printzipioaren arabera egozten dira; hau da, horiek berekin dakartzaten ondasunen eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean, horien ondoriozko diru-korrantea edo finantza-korrantea noiz gertatzen den aintzat hartu gabe. Hala ere, zuhertasun-printzipioari jarraiki, ekitaldi-amaieran egindako irabaziak soilik kontabilizatzen ditu Udalak; aldiz, ustez gerta daitezkeen arriskuak eta galerak —balizkoak izanda ere— jakin ahala kontabilizatzen dira.

(5) Azpiegitura

2014ko ekitaldian “Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea” epigrafearen hainbat kontutan erregistratutako mugimenduak hauek izan dira:

h) Subvenciones

El Ayuntamiento registra como subvención de capital o de explotación el importe concedido en el momento en el que, habiendo realizado los hechos subvencionados e imputado los gastos presupuestarios correspondientes, se han enviado al ente subvencionador los justificantes normativamente establecidos.

i) Indemnizaciones

De acuerdo con la reglamentación laboral vigente, el Ayuntamiento está obligado al pago de indemnizaciones a los empleados con los que, bajo determinadas condiciones, rescinda sus relaciones laborales. En condiciones normales, analizados los despidos que pudieran tener lugar en un futuro, y calculado el importe que se debería pagar por los mismos, el pasivo que se pudiera generar debido a las indemnizaciones no es alto. Los Órganos de Gobierno del Ayuntamiento no esperan que se vayan a producir despidos anormales y, por consiguiente, no se ha efectuado provisión alguna por este concepto en el balance de situación al 31 de diciembre de 2014 (adjunto).

j) Clasificación de las deudas a corto plazo

En el balance de situación a 31 de diciembre de 2014 (adjunto), las deudas se clasifican en función de los vencimientos, considerando como deudas a corto plazo aquellos importes con vencimiento anterior al 31 de diciembre de 2014.

k) Ingresos y gastos

Los ingresos y gastos se imputan en función del principio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos. No obstante, siguiendo el principio de prudencia, el Ayuntamiento únicamente contabiliza los beneficios realizados a la fecha del cierre del ejercicio, en tanto que los riesgos previsibles y las pérdidas, aun las eventuales, se contabilizan tan pronto como son conocidos.

(5) Infraestructura

Los movimientos registrados en las diferentes cuentas del epígrafe "Infraestructura, bienes y patrimonio destinados al uso general" durante el ejercicio 2014 han sido los siguientes:



Kontuak	Euroak					Amaierako saldoa
	Hasierako saldoa	Sarrerak edo zuzkidurak	Erabilera orok. emandakoak	Transferentzia edo intsuldaketa	Erretiroak	
Erabilera orokorrerako lursailak eta natura-ondasunak	0	13.676,63	13.676,63	-	-	0
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	809.338,24	704.868,85	-	-	104.469,39
Erabilera orokorrerako beste ondare mota batzuk	0	17.425,84	17.425,84	-	-	0
<b>AZPIEGITURA GUZTIRA</b>	<b>0</b>	<b>840.440,71</b>	<b>735.971,32</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>104.469,39</b>

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzearen (erantsita dago) "Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea" epigrafetik ateratzen den saldoa data horretan amaitu gabe edo erabilera orokorrera eman gabe dauden inbertsioen multzoak osatzen du.

Amaierako saldoko 104.469,39€-ak Narrondora zerbitzu ezberdinak bideratzeko lanei dagozkie, Zumaiako udaleko kontu-hartzaileak lanak behar bezala bukatuta zeudela egiaztatu ondoren, urte bukaeran zenbateko hori kontabilizatzea erabaki zuen, horretarako, zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatuta zen hitzarmenean zegoen zehaztuta.

(6) Ibilgetu ez-materialak

Mugimendu hauek izan dira ibilgetu ez-materialen hainbat kontutan eta horiei lotuta 2014ko ekitaldian metatu diren amortizazioetan:

Kontuak	Euroak				
	Hasierako saldoa	Sarrerak edo zuzkidurak	Irteerak, bajak edo murrizketak	Transferentzia edo intsuldaketak	Amaierako saldoa
<b>KOSTUA</b>					
Administrazio-emakidak	1.041,17	-	-	-	1.041,17
Ikerkuntza- eta garapen-gastuak	628.391,99	128.549,40	9.342,56	-	747.598,83
Informatika-aplikazioak	50.570,01	-	-	-	50.570,01
Bestelako ibilgetu ez-materialak	425.949,43	67.483,48	67.483,48	-	425.949,43
<b>KOSTUA GUZTIRA</b>	<b>1.105.952,60</b>	<b>196.032,88</b>	<b>76.826,04</b>	<b>-</b>	<b>1.225.159,44</b>

Cuentas	Euros					Saldo final
	Saldo inicial	Entradas o dotaciones	Entregas al uso general	Transferencias o traspasos	Retiros	
Terrenos y bienes naturales destinados al uso general	0	13.676,63	13.676,63	-	-	0
Infraestructuras y bienes destinados al uso general	0	809.338,24	704.868,85	-	-	104.469,39
Otro patrimonio destinado al uso general	0	17.425,84	17.425,84	-	-	-
<b>TOTAL INFRAESTRUCTURA</b>	<b>0</b>	<b>840.440,71</b>	<b>735.971,31</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>104.469,39</b>

El saldo que resulta del epígrafe “Infraestructura, bienes y patrimonio entregado al uso general” del balance de situación al 31 de diciembre de 2014 (adjunto) está compuesto por el conjunto de inversiones sin finalizar o sin entregar al uso general a dicha fecha.

Los 104.469,39€ corresponde a obras para la canalización de distintos servicios de Narrondo que el interventor del Ayuntamiento de Zumaia, tras comprobar que las obras estaban efectivamente terminadas, decidió contabilizarlas a final de año, contabilizando para ello el importe que estaba establecido en el convenio firmado con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

(6) Inmovilizado inmaterial

Los movimientos registrados en las diferentes cuentas del inmovilizado inmaterial y en sus correspondientes amortizaciones acumuladas durante el ejercicio 2014 han sido los siguientes:

Cuentas	Euros				Saldo final
	Saldo inicial	Entradas o dotaciones	Salidas, bajas o reducciones	Transferencias o traspasos	
<b>COSTE</b>					
Concesiones administrativas	1.041,17	-	-	-	1.041,17
Gastos de investigación y desarrollo	628.391,99	128.549,40	9.342,56	-	747.598,83
Aplicaciones informáticas	50.570,01	-	-	-	50.570,01
Otro inmovilizado inmaterial	425.949,43	67.483,48	67.483,48	-	425.949,43
<b>TOTAL COSTE</b>	<b>1.105.952,60</b>	<b>196.032,88</b>	<b>76.826,04</b>	<b>-</b>	<b>1.225.159,44</b>

METATUTAKO AMORTIZAZIOA					
Administrazio-emakidak	312,36	104,12			416,48
Ikerkuntza- eta garapen-gastuak	292.794,32	74.759,88	-	-	367.554,20
Informatika-aplikazioak	60.215,56	5.057,00	-	-	65.272,56
Bestelako ibilgetu ez-materialak	392.082,39	42.594,94	-	-	434.677,33
	-----	-----	-----	-----	-----
<b>METATUTAKO AMORTIZAZIOA, GUZTIRA</b>	<b>745.404,63</b>	<b>122.515,94</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>867.920,57</b>

(7) Ibilgetu materialak

Mugimendu hauek izan dira ibilgetu materialen hainbat kontutan eta horiei lotuta izan diren amortizazioak 2014ko ekitaldian:

Kontuak	Euroak			
	Hasierako saldoa	Sarrerak edo zuzkidurak	Irteerak, bajak edo murrizketak	Amaterako saldoa
<b>KOSTUA</b>				
Lursailak eta natura-ondasunak	2.078.478,63	0,00	0,00	2.078.478,63
Eraikuntzak	19.313.272,54	64.442,55	31.071,71	19.346.643,38
Instalazio teknikoak eta makinak	91.434,19	103,94	0,00	91.538,13
Bestelako instal., tresn. eta altzar.	1.022.721,70	59.271,97	598,95	1.081.394,72
Informazio-prozesuetarako ekipoa, garraio-elementuak eta bestelako ibilgetu materialak	1.273.160,93	32.693,88	6.040,56	1.299.814,25
	-----	-----	-----	-----
<b>KOSTUA GUZTIRA</b>	<b>23.779.067,99</b>	<b>156.512,34</b>	<b>37.711,22</b>	<b>23.897.869,11</b>

Kontuak	Euroak				
	Hasierako saldoa	Sarrerak edo zuzkidurak	Irteerak, bajak edo murrizketak	Transferentziak edo intsuldaketak	Amaterako saldoa
<b>METATUTAKO AMORTIZAZIOA, GUZTIRA</b>	<b>7.111.979,20</b>	<b>953.383,06</b>			<b>8.065.362,26</b>

(8) Finantza-inbertsioak

“Finantza-ibilgetuak” epigrafearen kontuetan honako mugimendu hauek eman dira:

AMORTIZACIÓN ACUMULADA				
Concesiones administrativas	312,36	104,12		416,48
Gastos de investigación y desarrollo	292.794,32	74.759,88	-	367.554,20
Aplicaciones informáticas	60.215,56	5.057,00	-	65.272,56
Otro inmovilizado inmaterial	392.082,39	42.594,94	-	434.677,33
<b>TOTAL AMORTIZACIÓN ACUMULADA</b>	<b>745.404,63</b>	<b>122.515,94</b>	<b>-</b>	<b>867.920,57</b>

(7) Inmovilizado material

Los movimientos registrados en las diferentes cuentas del inmovilizado material y en sus correspondientes amortizaciones acumuladas durante el ejercicio 2014 han sido los siguientes:

Cuentas	Euros			
	Saldo inicial	Entradas o dotaciones	Salidas, bajas o reducciones	Saldo final
<b>COSTE</b>				
Terrenos y bienes naturales	2.078.478,63	0,00	0,00	2.078.478,63
Construcciones	19.313.272,54	64.442,55	31.071,71	19.346.643,38
Instalaciones técnicas y maquinaria	91.434,19	103,94		91.538,13
Otras instalaciones, utillaje y mobiliario	1.022.721,70	59.271,97	598,95	1.081.394,72
Equipos para proceso de información, elementos de transporte y otro inmovilizado material	1.273.160,93	32.693,88	6.040,56	1.299.814,25
<b>TOTAL COSTE</b>	<b>23.779.067,99</b>	<b>156.512,34</b>	<b>37.711,22</b>	<b>23.897.869,11</b>

Cuentas	Euros			
	Saldo inicial	Entradas o dotaciones	Salidas, bajas o reducciones	Transferencias o traspasos
<b>TOTAL AMORTIZACIÓN ACUMULADA</b>	<b>7.111.979,20</b>	<b>953.383,06</b>		<b>8.065.362,26</b>

(8) Inversiones financieras

Los movimientos de las diferentes cuentas del epígrafe "Inmovilizado financiero" son los siguientes:

Kontuak	Euroak			
	Hasierako saldoa	Sarrerak edo zuzkidurak	Irteerak edo murrizketak	Amaierako saldoa
<b>FINANTZA-IBILGETUA</b>				
Finantza-inbertsioak sektore publikoko erakundeetan	2.297.370,78	-----	-----	2.297.370,78
Tok. Sektore Publikoarentzako kredituak	16.548,54	-----	-----	16.548,54
Epe luzerako kredituak	925.000,00	-----	-----	925.000,00
Epe luzerako finantza inbertsioak	1.712,94	-----	-----	1.712,94
Pertsonalarentzako epe luzerako kredituak	7.212,15	6.761,39	4.958,35	9.015,19
Epe luzera eraturako fidantzak	3.320,76	-----	-----	3.320,76
Epe luzera eraturako gordailuak	1.000,00	-----	-----	1.000,00
<b>FINANT. IBILGET. GUZTIRA</b>	<b>3.252.165,17</b>	<b>6.761,39</b>	<b>4.958,35</b>	<b>3.253.968,21</b>

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzean —erantsita dago---, “Tokiko Sektore Publikoko Entitateentzako Epe luzerako kredituak” epigrafeko saldoan, Zumaia Lantzen emandako maileguak dira. Bestalde, 925.000,00 euroko kopurua ere aurreko urteetan Zumaia Lantzen emandako beste kreditu bat da, hasiera batean, aurrekontuz kanpo emandakoa, eta pasa den urteko ekitaldian erregularizatu dena, eta aurrekontu kontabilitatean sartu, horrela, balantzean epe luzera jarri da.

Ekitaldi honetan zehar ibilgetu finantzarioan mugimendu txikiak izan dira, epe luzera emandako langileen maileguei dagozkie denak.

Bestalde, 2.297.370,78 euroko kopurutik 2.267.891,53 euro Zumaia Lantzen akzioetan edukitako akzioen balore nominala da. Enpresa hau %100 udalarena da, eta gaur egun likidazio prozesuan dago, bere oraingo izena “Zumaia Lantzen Likidazioan” da, aurreikuspenen arabera 2015eko ekitaldian zehar desegitea espero da, bere aktibo guztiak udalera pasatuz. Zumaia Lantzen Likidazioan-en maileguak udalaren izenera pasako dira, hiru dira, eta guztira 2.927.827,94€.

(9) Funts propioak

2014ko ekitaldian, mugimendu hauek erregistratu dira “Funts propioak” kapituluko hainbat epigrafetan:

Cuentas	Euros			
	Saldo inicial	Entradas o dotaciones	Salidas o reducciones	Saldo final
<b>INMOVILIZADO FINANCIERO</b>				
Inversiones financieras en entidades del sector público	2.297.370,78	-----	-----	2.297.370,78
Créditos a entidades del sector público local	16.548,54	-----	-----	16.548,54
Créditos a largo plazo	925.000,00	-----	-----	925.000,00
Inversiones financieras a largo plazo	1.712,94	-----	-----	1.712,94
Créditos a largo plazo al personal	7.212,15	6.761,39	4.958,35	9.015,19
Fianzas constituidas a largo plazo	3.320,76	-----	-----	3.320,76
Depósitos constituidos a largo plazo	1.000,00	-----	-----	1.000,00
<b>TOTAL INMOVILIZADO FINANCIERO</b>	<b>3.252.165,17</b>	<b>6.761,39</b>	<b>4.958,35</b>	<b>3.253.968,21</b>
	=====	=====	=====	=====

En el saldo del epígrafe “Créditos a largo plazo a entidades del sector público” del balance de situación al 31 de diciembre del 2014 adjunto se incluyen diversos créditos concedidos a Zumaia Lantzen. A su vez los 925.000 euros hacen referencia a un nuevo préstamo concedido a Zumaia Lantzen en años anteriores el cual en principio se concedió como extrapresupuestario y que en el ejercicio anterior se regularizó y se contabilizó presupuestariamente, apareciendo de esta manera en el Balance de Situación a Largo Plazo.

Durante este ejercicio se han dado pequeños movimientos en el inmovilizado financiero asociado únicamente a los créditos a largo plazo de personal.

Por otra parte de los 2.297.370,78 euros, 2.267.891,53 euros corresponden al valor nominal de las acciones de Zumaia Lantzen. Ésta empresa es 100% municipal, está actualmente en situación de liquidación por lo que su denominación actual es “Zumaia Lantzen en Liquidación”, la cual se prevé que se extinga pasando todos sus activos al Ayuntamiento durante el ejercicio 2015. Los préstamos de Zumaia Lantzen en liquidación que se van a subrogar a nombre del Ayuntamiento son tres y ascienden en su totalidad a 2.927.827,94€.

(9) Fondos propios

Los movimientos registrados en los diferentes epígrafes del capítulo “Fondos propios” durante el ejercicio 2014 han sido los siguientes:

Kontuak	EUROAK				
	Hasierako saldoa	Igoerak	Jaitsierak	Transferentziak edo intsuldaketak	Amaierako saldoa
Ondarea	7.458.513,62				7.458.513,62
Atxikitako edo lagatako ondarea	(5.996.928,41)				(5.996.928,41)
Erabilera orokor. emandako ondarea	(19.393.536,05)	287.488,30			(19.681.024,35)
Itxitako ekitaldien emaitza positiboa	43.302.675,73	1.184.698,48	390.416,88		44.096.957,33
Itxitako ekitaldien emaitza negatiboa	(390.416,88)		390.416,88		0,00
Galerak eta irabaziak	1.184.698,48	1.794.252,54	1.184.698,48		1.794.252,54
<b>FUNTS PROPIOAK GUZTIRA</b>	<b>26.165.006,49</b>				<b>27.671.770,73</b>

1993ko urtarrilaren leian, Udalaren egoera-balantzea egin zenean, “Ondarea” epigrafearen saldoa 1.180 milioi pezetakoa zen; kopuru hura honako hauei esleitutako balioen arteko diferentzia eginez kalkulatu zen: data horren aurretik eskuratutako edo eraikitako udal-ibilgetua, orduan epea amaitu gabeko pasiboak, eta 1992ko abenduaren 31n zeuden diruzaintza-gerakinaren diruzaintza-, zordun- eta hartzekodun-saldoak.

Atxikitako edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko laga diren ondasunen balioa “Atxikitako edo lagatako ondarea” epigrafean jaso da, San Juan egoitzari, Musika Patronatuari eta Kirol Patronatuari egiten die erreferentzia.

2014ko abenduaren 31n, “Erabilera orokorrerako emandako ondarea” epigrafearen saldoak egoera-balantzea egin zen egunaz geroztik erabilera orokorrerako eman diren ondasunen balio metatua adierazten du.

#### (10) Kapitalerako diru-laguntzak

Jasotako kapitalerako diru-laguntzak ekitaldi bakoitzaren emaitzari dagozkio.

Epigrafe honen baitan 2014ko ekitaldian kontabilizatutako gehigarriek, funtsean, izaera bereko aurrekontu-kontzeptuetan likidatutako eskubideekin bat datozenak dira, diruz lagundu duten erakundeen aurrekontuen kontura egindako transferentziak adierazten dituzte.

Diru-laguntza horiek oraingo ekitaldiko edo aurreko ekitaldietako inbertsio-aurrekontuetan sartutako hainbat inbertsio-proiektu finantzatzeko erabili dira; hain zuzen, beheko taulan zehaztu da zer inbertsio-mota izan diren eta zenbateko diru-laguntza jaso duten:

Cuentas	EUROS				
	Saldo inicial	Aumentos	Disminuciones	Transferencias o trasposos	Saldo final
Patrimonio	7.458.513,62				7.458.513,62
Patrimonio adscrito o cedido	(5.996.928,41)				(5.996.928,41)
Patrimonio entregado al uso general	(19.393.536,05)	287.488,30			(19.681.024,35)
Resultado positivo de ejercicios cerrados	43.302.675,73	1.184.698,48	390.416,88		44.096.957,33
Resultado negativo de ejercicios cerrados	(390.416,88)		390.416,88		0,00
Pérdidas y ganancias	1.184.698,48	1.794.252,54	1.184.698,48		1.794.252,54
<b>TOTAL FONDOS PROPIOS</b>	<b>26.165.006,49</b>				<b>27.671.770,73</b>

A 1 de enero de 1993, fecha de constitución del balance de situación del Ayuntamiento, el saldo del epígrafe “Patrimonio” ascendió a 1.180 millones de pesetas y fue determinado por diferencia entre los valores asignados al inmovilizado municipal adquirido o construido con anterioridad a dicha fecha, a los pasivos no vencidos entonces y a los saldos de tesorería, deudores y acreedores del Remanente de tesorería al 31 de diciembre de 1992.

El valor de los bienes adscritos o que han sido cedidos para su explotación o utilización se registra en el epígrafe “Patrimonio adscrito y cedido”, y corresponde a la Residencia San Juan, el Patronato de Música y el Patronato de Deportes.

A 31 de diciembre de 2014 el saldo del epígrafe “Patrimonio entregado al uso general” refleja el valor acumulado de los bienes entregados al uso general desde la fecha de constitución del balance de situación.

(10) Subvenciones de capital

Las subvenciones de capital recibidas forman parte del resultado de cada ejercicio.

Las adiciones contabilizadas durante el ejercicio 2014 en este epígrafe, que se corresponden, básicamente, con los derechos liquidados en los conceptos presupuestarios de idéntica naturaleza, representan transferencias concedidas con cargo a los presupuestos de los Entes subvencionadores.

Estas subvenciones han sido destinadas a la financiación de diversos proyectos de inversión incluidos en los presupuestos de inversiones del ejercicio o de ejercicios anteriores, cuya naturaleza e importe subvencionado se indican a continuación:



Inbertsioak	Euroak
Hobetze lanak eskola publikoetan (Eusko Jaurlaritza)	22.501,51
Beheko Plaza berritzeko diru-laguntza (GFA)	99.573,00
Talai-Mendiko Magala (GFA)	91.278,29
Zumaiako Frontoi Luzea	200.000,00
Urkomeren diru-laguntza Zumaiako	7.425,75
merkatuarentzako eta errepideentzako	60.000,00
Baratzak (Kutxa)	
<b>KAPITALEKO DIRU-LAGUNTZA FINANTZIAZIOA GUZTIRA</b>	<b>478.778,55</b>

Zumaiako Frontoi Luzearen diru-laguntza ondorengo moduan joango da gauzatzen:

- 200.000euro 2014an.
- 200.000euro 2015ean.
- 350.000euro 2016an.

Orain diruz laguntzen ari diren inbertsioa bere osotasunean finantzatu zen norbere baliabideekin, erreferentzia egiten baitio frontoiko BEZ ez kengarriari, 2013an ordaindu baitzen 754.260,48€-gatik.

Diru-laguntza hau hiru urterako eman denez, eta erreferentzia, jada, ordainduta dagoen inbertsio bati egiten dion, urte bakoitzeko kreditu soberakina lotu egin ahalko da, abenduaren 19ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak uzten duen bezala, bere 19.artikuluari, bertan ondorengoa dio:

*“Aurrekontu-kredituak muga eta lotura izaerakoak dira. Lotura mailak urteko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarriko dira eta, beren beregi zehazten ez denean, honako hauek izango dira:*

*- Eginkizun egitaraua eta kontzeptua, gastu arrunten ziozko eta kapital transferentzia eta diru-laguntzen, ondasun-inbertsioen eta finantza aktiboen aldaketan ziozko gastuetan.”*

Horregatik, Zumaiako frontoi luzeko kreditu soberakina 2014an zehar loturaren bitartez hurrengo inbertsioa finantzatu ahal izateko erabili da:

1 0100.622.452.10.02 2014	1918	FUTBOL ZELAIKO BELAR ARTIFIZIALA	183.931,16
---------------------------	------	-------------------------------------	------------

Inversiones	Euros
Obras en colegios públicos ( Gobierno Vasco)	20.501,51
Subvención para la renovación de Beheko Plaza ( GFA-DFG)	99.573,00
Ladera Talai- Mendi ( GFA-DFG)	91.278,29
Frontón Largo de Zumaia ( GFA-DFG)	200.000,00
Subvención de Urkome para el mercado de Zumaia y carreteras.	7.425,75
Huertas ( Kutxa)	60.000,00
<b>TOTAL FINANCIACIÓN POR SUBVENCIONES DE CAPITAL</b>	<b>478.778,55</b>

La subvención del Frontón Largo de Zumaia se irá formalizando de la siguiente manera:

- 200.000 euros en el 2014.
- 200.000 euros en el 2015.
- 350.000 euros en el 2016.

La inversión que ahora se subvenciona ya se financió en su totalidad con recursos propios, ya que hace referencia al IVA no deducible del frontón que se pagó en el 2013 por una cuantía que asciende a 754.260,48€.

Al estar concedida esta subvención en tres años, y al hacer referencia al pago de una inversión ya realizada, cada año se procede a vincular el crédito excedentario tal y como permite la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en su artículo 19, la cual establece lo siguiente:

*“Los créditos presupuestarios tienen carácter limitativo y vinculante. Los niveles de vinculación serán establecidos por la Norma de Ejecución Presupuestaria anual, y en ausencia de determinación expresa serán los siguientes:*

*-Programa funcional y concepto, en los gastos relativos a transferencias y subvenciones por gastos corrientes y de capital, inversiones reales, y variación de activos financieros”*

Por ello, el crédito excedentario del frontón largo de Zumaia durante el 2014 se ha utilizado para poder financiar a través de la vinculación la siguiente inversión.

Inbertsio hau 2014an zehar baimendu zen, gauzatzea 2015ean zehar bukatzeko.

(11) Zorrak

Udaleko erregistro lagungarrien arabera, 2014ko abenduaren 31n udalak ez dauka zor bizirik kreditu erakundeekin.

Zumaia Lantzen desegite prozesuan sartu denetik, bere ondorengo desagertzerako, akordio hau 2014ko abenduaren 19an hartu zen, likidazio akordio hau erregistratu ondoren, enpresa hau %100ean udalarena da, "Zumaia Lantzen likidazioan" deitzera pasako da. Sozietate horrek zor batzuk dauzka, %100ean udalak abalatuta, bere desegitearen ondorioz, udalak pasa den urtarrilaren 29ko osoko bilkuran zor horien kargu egitea erabaki zuen, eta zor hori 2015eko martxoaren 27an formalizatu da. Zumaia Lantzenek lehen zeuzkan hiru mailegu horiek udalaren izenean jarriz, eta ordainketa epea 15 urteraino luzatuz, horrela, udala finantzarioki ez egoteko hain estu. Mailegu hauek martxoaren 27an udalera pasatzen dira ondorengo moduan:

<b>Lehenengo mailegua (Hipotekarioa)</b>		
<b>Hasierako mailegua</b>	<b>Interesa: %0,963</b>	<b>Epea</b>
1.409.689,38 €	Euribor+%0,94	15 urte
<b>Bigarren mailegua (Kutxakoa zena)</b>		
<b>Hasierako mailegua</b>	<b>Interesa: %0,963</b>	<b>Epea</b>
624.467,00 €	Euribor+%0,94	15 urte
<b>Hirugarren mailegua (Bankoakoa zena)</b>		
<b>Hasierako mailegua</b>	<b>Interesa: %0,963</b>	<b>Epea</b>
893.671,56 €	Euribor+%0,94	15 urte

Guztira, 2014ko abenduaren 31an abalatuta zegoen zorra, eta 2015eko martxoaren 27an udalaren izenera pasatzen dena 2.927.827,94eurokoa da.

(12) Sarrerak eta gastuak

- a) Hainbat erakundeekin egindako transakzioak

Esta inversión se autoriza durante el 2014 para terminarse su ejecución en el 2015.

(11) Deudas

Según los registros auxiliares del Ayuntamiento, a 31 de diciembre de 2014, el Ayuntamiento tiene una deuda viva con entidades de crédito de 0,00 euros.

Al entrar Zumaia Lantzen en proceso de disolución para su posterior extinción, ésta acuerda el 19 de diciembre de 2014 entrar en liquidación por lo que a partir de la inscripción del acuerdo de liquidación, esta empresa 100 % propiedad municipal, pasa a denominarse "Zumaia Lantzen en Liquidación". Esta sociedad tiene una serie de deudas avaladas al 100% por el ayuntamiento, por lo cual, el ayuntamiento en pleno, decide hacerse cargo de dicha deuda en sesión celebrada el 29 de enero de 2015 y que se formaliza el 27 de marzo de 2015 poniendo los tres préstamos que tenía hasta entonces, a nombre del Ayuntamiento y prorrogando el plazo de pago de los mismos hasta un total de 15 años para causar el menor ahogo financiero posible al ayuntamiento. Estos préstamos el 27 de marzo de 2015 se pasan al Ayuntamiento de la siguiente manera:

<b>1er préstamo( Hipotecario)</b>		
<b>Préstamo inicial:</b>	<b>Interés:% 0,963</b>	<b>Plazo</b>
1.409.689,38 €	(Euribor + 0,94%)	15 años

<b>2º préstamo( El que era de Kutxa)</b>		
<b>Préstamo inicial:</b>	<b>Interés:% 0,963</b>	<b>Plazo</b>
624.467,00 €	(Euribor + 0,94%)	15 años

<b>3er préstamo( El que era de Bankoa)</b>		
<b>Préstamo inicial:</b>	<b>Interés:% 0,963</b>	<b>Plazo</b>
893.671,56 €	(Euribor + 0,94%)	15 años

En total la deuda que a 31 de diciembre de 2014 estaba avalada y que se cambia a nombre del Ayuntamiento el 27 de marzo de 2015 asciende a 2.927.827,94€.

(12) Ingresos y gastos

- a) Transacciones efectuadas con entes del sector público

2014an, Udalak eragiketa arrunten transakzio garrantzitsuak egin ditu hainbat erakundeekin; hala, erakunde publikoekin egindako transakzioetan, 5.863.825,36 euro jaso ditu, eta 1.933.977,16 euro eman ditu. Horrez gain, kapital-eragiketen transakzioak ere egin ditu; zehazki, 478.778,55 euro jaso ditu, eta 15.000,00 euro eman.

2014ko likidazioa egin ondoren, konturatu gara erakunde publikoekin egindako transakzioetan ez ditugula 5.863.825,36 euro jaso, zenbateko hau ez da zuzena. Foru Aldundiak FOFIM-aren likidazioa egin duenean 54.183,89€ gehiago eman baitizkigu. Horregatik, data horretan 2014ko kontabilitatea itxita zegoenez, zenbateko hau 2015eko aurrekontu kontabilitatean, ondarezkoan, eta ekitaldiko emaitzan islatuko da.

### Batez besteko plantilla

Honako hau izan da ekitaldian enplegatuta egon diren pertsonen batez besteko kopurua, mailen arabera banatuta:

Mailak	Langile-kopurua
A taldea	5
A2 taldea	13
C1 taldea	32
C2 taldea	4
E taldea	8
ENPLEGATUTAKO PERTSONAK GUZTIRA	62

